

Original, Kanadako euskal oreina

L'ORIGINAL (Ontario, egungo Kanada), 1674. Frantziako errege Louis XIV.ak jaurerri karta eman zion Ottawa ibaiaren ertzeko herrixkari. Horrenbestez, Frantzia Berriko herri horren euskal jatorriko izena ofizial bihurtu zen, eta gaur egun, Champlain udalerriaren barruan egon arren, 2.000 biztanle inguruko herrixkak izena atxikitzen du. Jatorriz orein saldoek gune horretan zeharkatzen zuten Ottawa ibaia, eta horregatik frantsesek Pointe à l'Original (Oreinarene gunea) izena eman zioten kokaguneari.

Euskal arrantzaleak XVI. mendeko lehen erdialdean hasi ziren Ternuako sardetan balea eta bakailaoa harrapatzen. Izotzak neguan etxera itzularazi arren, Ipar Amerikako ekialdeko kostaldean behin-behineko kokalekuak finkatu zituzten, bakailaoa lehertzeko eta Europan hain preziatua zen balea olioia prestatzeko. Samuel de Champlain edota Marc Lescarbot frantziar kolonoek jaso zuten, euskaldunek, oro har, bertako biztanleekin harreman onak omen zituzten eta frantziarrak euskaldunen ezagutzaz baliatu ziren kostalde hotz haiek konkistatzeko. Euskal arrantzaleen interesak itsasora mugatzen zirenez, ez zuten arrasto handirik utzi: dozena erdi bat krosko aurkitu dituzte, zeramikazko objektu batzuk, hezurak, teila gorrien arrastoak...

Euskaldunek lurralde horietan munduko zerbidorik handiena, *Alces alces* espeziekoa, topatu zuten. Eta adar zabaleko oreinari, jakina, *oreina* esan zioten.

1550-1580ko hamarkadetan, euskal arrantzaleen jarduerak goia jo zuen. Baina handik aurrera Atlantikoa



NATURE CANADA

Ipar Amerikako eremu frantsesdunean, *Alces alces* espezieari *original* (oreina) esaten diote.

zeharkatzeko bidaiak behera egiten hasi ziren, hainbat arrazoi medio: balea populazioa murrizten hasia zen; kontinente zaharrea Espainia eta Frantzia elkarren aurkako gerran zirela aprobetxatuz, britainiarrak eta holandarrak hasi ziren ur haiez jabetzen; Frantzia Berria indartu ahala, Hegoaldeko euskaldunentzat geroz eta toki gutxiago zegoen han; eta, gainera, kolonizatzaile berrien asmoak ikusita, bertako herriak, inuitak nagusiki, liskarrean hasi ziren.

Esan bezala, arrasto gutxi utzita alde egin zuten euskaldunek, baina kolono berriek hango oreinari euskaldunek bezala esango zioten: *oreina*, gerora *original* bihurtuko zena. Eta, egun, oraindik horrela esaten diote Kanada frantsesdunean eta Quebecen. ■



Arrastoak

Zinemako izarrak Donostian ibiltari



DAVID CALLE

DONOSTIAN IBILTARI izeneko erakusketa zabalik egongo Donostiako San Telmo museoan irailaren 30era bitartean. Donostiako Zinemaldiaren sei hamarkadako historiari errepasoa egiten dio erakusketak, hemezortzi argazkilariren 80 bat argazkiren bidez. Kutxatekaren bil-

dumako argazkiotan badira pertsonaia anonimoak, baina gehienak zinemako izar ezagunak dira: Kim Novak, Eve Marie Saint, Clive Owen eta Glenn Close aktoreak, Pedro Almodovar eta Robert Altman zuzendariak... (argazkian, Quentin Tarantino 1994an). ■